



KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2025eko uztaila - 262 zkia.

Patxi Beitia Alkorta

Zesta-punta pilotari ohia eta pilotagilea

ANAIARTEKO DANBORRADAK 25 URTE • UDAKO SOLSTIZIOA MADALEN AUZOAN
ITSASOKO BAINURIK EDERRENAK, SATURRARANEN • KOLDO LIZARZABURU, ERRUGBIAN EPAILE
«GARDUZAKUA» ETXEA

BERTAN

Mutrikuko Merkatarien Elkartea

... zure alboan

GOI-MAILA:

- Bioteknologia - Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
- Administrazioa eta finantzak
- Web aplikazioen garapena
- Automatizazioa eta robotika industrialak
- Mekatronika industrialak
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

ERDI-MAILA:

- Mantentze-lan elektromekanikoa
- Beroa sortzeko instalazioak
- Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikaria
- Elikagaiak elaboratzeko teknikaria
- Soldadura eta galdaragintza
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta

ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:

- Zibersegurtasuna eragiketa-teknologiaren inguruneetan

LHEZIKETA

MARKINA-XEMEIN

Matrikula-epea I
UZTAILAK 11-15



lea artibai
ikastetxea

leartik.eus

94 616 90 02 info@leartik.eus



Telefonoak

Osasuna

OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Alzheimer elkarte	943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar)	943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48 / 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte bulegoa	943 60 42 47
Anai Arte taberna	943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa	943 60 38 71
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaiz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Kontsoltzioa	943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 89 91 52
Samiela Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua	943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua	943 60 71 37
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa Autobusak	900 12 14 00
BizkaiBus	902 22 22 65
EuskoTren	944 333 333
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
----------	--------------

Iritzixa

Amaia Andonegi Egurbide

GOAZEN

Munduak hartu duen joera edo deriba ikusita, gero eta argiago daukat GLOBALEAN PENTSATU ETA LOKALEAN JARDUN behar dugula.

Aipatzekogai bat energia elektrikoarena da. Gogoratuko dugu egun erdi bateko itzalaldi hura, argirik gabeko ordu haiek, gero eta gehiago larritzen hasiak ginela. Hark begi bistan jarri zigun kanpo energiaren zenbaterainoko menpekotasuna daukagun. Ba, alderdi horretatik ongi etorria MUTRIKUKO KOMUNITATE ENERGETIKOA proiektuari, eta, hortaz, pentsatzen eta eratzen dabiltzenei animoak eta konplizitatea hemendik.

Beste gaia aipatu nahi dudana etxe komunitarioena da. Apirilean, «Lotune»tik Irati Mogollon etorri zitzaigun Mutrikura hitzaldi bat ematera, POSIBLE AL DA KOMUNITATEAN BIZITZEA? izenekoa. Pantailan azaldu zigun lehen esaldia haxe izan zen: UMOREA TRESNA POLITIKO GISARA. Benetan modu umoretsuan, praktikoan eta partehartzailean aurkeztu zigun gaia. Honek 2014an idazlan bat egin zuen Europatik ibili eta 20 etxebizitza bisitatu ondoren, beraz, ondo daki zertaz ari den eta zer errealitate daukagun inguruan. Esan beharra dago gaur mota honetako etxeak eraikitzen hasiak direla hemen ere. Bere ustetan, helburu orokorra haxe litzateke: ZAHARTZAROA ERABAKITZEKO GAI IZATEA, NORBERA. Gehienok seguruenik bat etorriko gara iritzi horrekin.

Galderak bota zizkigun. Besteak beste, «nork zaindua izatea nahiko zenuke?», «Nork garbituko zaitu?» eta abar... Inertziak haundiak dira, pentsatu egin behar da aurrez, eta ez hortaz hitz egitea ebitatu, askotan elkarriketak ditugunean beranduegi da-eta! Orokorrean, gaur egungo zaharren zaintzak logika sanitarioarekin funtzionatzen duela esan dezakegu. Nola sortu erdi bideko zaintzak? Noiz 60 urtetik gorakoentzako etxebizitzak? Nola sortu lagunartean, aktiboan, osasuntsuak, partehartzaileak, eta ingurumenarekin errespetuan bizitzeko aukera emango digutenak?

Ez nago eredu pribatuetan pentsatzen, ze badago gaur joera bat den-dena merkantilizatzekoa «non negozioa, han eskaintza». Pentsatzen nago alternatiba sozialetan, dirutan eskuragarri direnak, partaideek erabakimena dutenak... Etxe komunitario, kooperatibo, konbidentzialak...(couhousing-ak) autogestionatuak izaten dira. Non dago komunitatea nahi duen jende hori? Zer egin? Galdera hori egin genion Iratiri eta hau izan zen erantzuna: Galdetu! INKESTA BAT EGIN, EMAITZEKIN BILERA BAT ESKATU UDALARI. Horra lana, nahi duenarentzat. Zenbat eta lehenago hasi, lehenago lortu.

Amaitzeko, UDA ON-ONA ETA SOLIDARIOA PASA!!!

Argitaratzailea

Karenka Komunikazio Elkarte
Barrenkale 12, behe
20830 Mutriku

Tel. 635 748 393

e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus

Webgunea: www.kalaputxi.eus

Bloga www.kalaputxi.blogspot.com

Laguntzailea **Mutrikuko Udala**

Kolaboratzaileak

Josu Larrañaga, Eneko Erraiz,
Inhar Mutiozabal

Tirada 2.200 ale

Lege Gordailua **SS-787/01**

ISSN **1579-4792**

Inprimategia **EUSKALINPRI**

Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Mutrikuko Udalaren dirulaguntza
jasotzen du:



Mutrikuko Udala

abuztuko ordutegiak

Lurraldebus-en 2024ko abuztuko ordutegian oinarrituta

www.lurraldebus.eus
900 300 340



ordutegi eta geltoki guztiak hemen:
www.kalaputxieus/garraioa

astelehenetik ostiralera							
DB03	LEKEITIO - DONOSTIA						
Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	21:00		
Ondarroa	*6:40	10:15	13:15	18:15	21:25	*	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	21:30		
Donostia	7:55	11:30	*14:30	19:30	22:40	Unibertsitateetik	
DB03	DONOSTIA - LEKEITIO						
Donostia	8:00	11:00	14:30	20:30	23:20		Uniber
Mutriku	8:50	11:50	15:20	21:20	23:50		
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	22:05	00:25		
DB04	ONDARROA - MALLABIA						
Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25			
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05			
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30			
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45			
OSTIRAL GAUEAN Mutrikutik: 23:25; 01:15.							
DB04	MALLABIA - ONDARROA						
Mallabia	6:00	6:45	orduro	19:45			
Eibar	6:05	7:05	orduro	20:05			
Mendaro	6:35	7:35	orduro	20:35			
Mutriku	6:55	7:55	orduro	20:55			
OSTIRAL GAUEAN Mutrikura heldu: 00:25. (Eibarren -25 min.)							
DB06	ONDARROA - SORALUZE						
Mutriku		10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro		11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze		11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40
DB06	SORALUZE - ONDARROA						
Soraluze		9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar		9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro		10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku		10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak							
DBo3	LEKEITIO - DONOSTIA						
Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	21:00		
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	21:25		
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	21:30	la	
Donostia	9:40	14:10	18:40	19:10	22:40		
DBo3	DONOSTIA - LEKEITIO						
Donostia	10:30	14:30	17:00	20:30	21:00	23:20	
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50	23:50	
Lekeitio	la12:05	16:05	18:35	22:05	22:35	00:25	
DBo4	ONDARROA - MALLABIA						
Mutriku	7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	22:15	
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25	
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45	
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---	
LARUNBAT GAUEAN Mutrikutik: 23:20, 23:55, 01:55, 03:55, 05:55.							
DBo4	MALLABIA - ONDARROA						
Mallabia	6:50	7:45	orduro	19:45	20:45	21:45	
Eibar	7:00	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00	
Mendaro	7:35	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35	
Mutriku	7:55	8:55	orduro	20:55	21:55	22:55	
LARUNBAT GAUEAN Mutrikura heldu: 01:05; 03:05; 05:05; 06:05. (Eibarren -25 min.)							
DBo6	ONDARROA - SORALUZE						
Mutriku	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45		
Mendaro	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20		
Soraluze	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40		
DBo6	SORALUZE - ONDARROA						
Soraluze	10:40	12:40	16:40	18:40	20:40		
Elgoibar	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45		
Mendaro	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00		
Mutriku	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20		

www.euskotren.eus

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero		Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
BILBOTIK		7:00	20:00	DonostiaTIK	5:50	7:50	20:50
Eibar	6:14	7:14	21:14	Errekalde	5:59	7:59	20:59
Elgoibar	6:24	7:24	21:24	Orio	6:14	8:14	21:14
Mendaro	6:33	7:33	21:33	Zarautz	6:20	8:20	21:20
DEBA	6:44	7:44	21:44	Zumaia	6:29	8:29	21:29
Zumaia	7:00	8:00	22:00	DEBA	6:43	8:43	21:43
Zarautz	7:08	8:08	22:08	Mendaro	6:52	8:52	21:52
Orio	7:15	8:15	22:15	Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Errekalde	7:29	8:29	22:29	Eibar	7:11	9:11	22:11
Donostia	7:38	8:38	22:38	Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO			BILBO - ONDARROA		
astelehenetik ostiralera			astelehenetik ostiralera		
	lehena	azkena		lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40	A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25			Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	6:10	20:10	A3915 Durangotik	7:40	21:40
Ondarroatik Bilbora zuzenean: 6:30; 7:30					
jai egunak			jai egunak		
A3916 Ermuatik	6:40	20:40	A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	7:10	20:10	A3915 Durangotik	8:40	21:40

KEXA

Idatzi honen bidez, kiroldegiko saio gidatueta erabiltzaileok gure desadostasuna adierazi nahi diogu Mutrikuko Udal kiroldegia kudeatzen duen enpresari eta baita Mutrikuko udalari ere.

Ikasturte honetan zehar, langileen lesio eta baja egoeren aurrean, hauekin egindako kudeaketa tamalgarria salatu nahi dugu. Izan ere, betiko langileak falta izan direnean, azken hilabete honetan, hain zuzen ere, ordutegian adierazita dauden saioen formatuak ez dira bete. Besteak beste, ez dakigu klaseak egongo diren, ez dakigu nork emango dituen, ezta nola eta zer emango den ere. Horrek eragin zuzena izan du saio gidatuen garapenean eta kalitatean, eskaintzen diren zerbitzuetan egonkortasun eta jarraikortasun ezak zuzenean eragiten baititu erabiltzaileoi.

Hori dela eta, beharrezkoak diren neurriak har daitezkeen eskatzen dugu, langileen lan-baldintzak hobetzeko, beren lana ondo egiten duten profesionalen jarraikortasuna bermatzeko eta langileekiko kudeaketa arduratsu eta errespetuzkoa ziurtatzeko.

Udari begira, saio gidatuen gutxieneko eskaintza mantentzea ere eskatu nahi dugu. Garai honetan kiroldegia erabiltzen dugunok, udan ere ohiko saioetan jarraitu ahal izateko eskubidea daukagu eta. Labur esanda, zerbitzu publiko honetan, erabiltzaileak eta langileak erdigunean jartzea eskatzen dugu eta norabide horretan neurriak hartzea.

Saio gidatueta erabiltzaileak

LEA-ARTIBAICO GABABUSA MUTRIKURAINO LUZATU

Orain dela hiru urte hasi ginen Mutrikuko hainbat gazte udan gababusa jartzeko udalari eskariak egiten. Hainbat eskari egin ondoren, eta erantzunik egon ez dela ikusita, beste bide bat hartzea behartuta ikusi gara. Eskaria aldarrikapen bihurtu da eta Kalaputxiko orri hauek aprobetxatuko ditugu horretarako. Gure eskaria argia da: Lea Artibaiko gababusa Mutrikuraino luzatzea. Udako jaietatik seguru eta diru dextente ordaindu gabe itzuli nahi dugu etxera. Askotan gure irtenbide bakarra Lea Artibaik antolatzen duen gababusa hartu (5 €) eta Ondaruraino joatea izaten da. Ondoren gurasoak izaten ditugu zain edo taxia hartu behar izaten dugu Mutrikura heltzeko. Ondorioz, askotan etxera itzultzea hamar eurotara heltzen da. Beraz, argi gelditzen da gure eskaria zein den: Lea-Artibaiko gababusa Mutrikura luzatu mesedez!

MUTRIKUKO GAZTEAK
(Eider Esnaola Urizar)

BIHOTZETIK HITZ BATZUK...

Zein ederra den norbere seme alabak zoriontsu sentitzea, egunetik egunera aurrerapausoak ematen doazela nabaritzea eta aurrera begira ere beharrezkoak izango dituzten baliabideez jabetuz doazela ikustea.

Beti ez da erreza izaten, bidean mila korapilo sortzen zaizkielako/zaizkigulako, horregatik prozesu eder honetan, bidelagunen babesa eta gertutasuna ezinbesteko ezaugarri bihurtzen da eta zuek hori izan zarete beraien ikaste/hezte prozesu honetan, bidelagun konprometitu, sentikor eta nekaezinak.

Gure aldetik eskertzea besterik ez zaigu geratzen, zuek moduko profesionalen lana goraiatuz eta publikoki errekonozituz, euskal eskola publikoak dituen altxorak zaretelako.

Ongi egindako lanak errekonozimendua merezi duelako, ESKERRIK ASKO, Xabi, Ianire eta Maialen!!!

BEREZI denak MEREZI!!!

Goizako Izarrako 6.mailako ikasleen gurasoak



Kalaputxi aldizkariak irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira posta arruntez edo posta elektronikoz aldizkaria@kalaputxi.eus helbidera. Aldizkariak ez du zertan bere egin idatzien edukia.



IBARPLAS

leihoaren erreferentzia



ANAIARTE DANBORRADAK

25 URTE

Irailaren 13an, Galbaixo bezperan



Data esanguratsua dute Anaiarte elkarteko kideek, aurtén 25 urtez jarraian aterako baitira danborradan Galbaixo bezperan, herriko jaiei hasiera emateko. Une berezi hau Kalaputxirekin partekatu nahi izan dute herritar guztien-gana ailegatzeko, nahiz eta hilabete batzuk falta diren horretarako.



Urte seinalatua aurtengoa...

Zilarrezko ezteiak izango dira aurtengoak, nahiz eta jakin badakigun urte dexente lehenagoko kontua dela Galbaixoetako danborrada,

1926an. “Urte hartan Ondarruk irabazi zuen Kontxako bandera eta haiek zoriontzera joan omen ziren mutrikuarrek danborrarekin” zioen Antonio Arrietak. Urte luzeen etenaren ondoren, gerra ostean, 1951. urtean ere ateraz zen. Ez dakigu zenbat aldiz, bakarrik dakigu *Itsas-gain* eta *Etxekalte* elkarteek antolatutakoa izan zela.

2000. urtean Anaiarteko orduko lehendakari Luis Mari Rodriguez «Sastrillo»k Galbaixo bezperan danborrada ateratzeko eskaera, aurkeztu zion Udalari, eta gaur arte. “Pena da, baina ez dago dokumentatuta inon, ez akta... ez ezer, askotan gertatzen den bezala...”

Zuzendariak ere aldatzen joan dira...

Hasieran Inazio Odriozola «Pintxaso» izan zen zuzendaria, baina laguntzaile bat nahi zuen, eta Karmele Andonegiri esan zion berarekin hasteko. «Nire lana orduan eta orain, baimenak eskatzea, pregoia emateko eskaera egitea, frontoia entsegu orokorrak egiteko, bandakoekin egon...» dio Karmelek. Urte hauetan guztietan zuzendari hauek pasatu dira danborradaren gidaritzatik: Inazio Odriozola «Pintxaso», Ramón Saenz, Itziar Galdos, Angel Mari Aranberri, Itziar Egurbide «Txatia» eta, azkenik, Nikaxi Illarramendi.

Garai batean danborrak alokatu egiten ziren; gaur egun, ordea, ez dugu inora joan behar alokatzera, Udalarekin batera, Mandazketa, Anaiarte eta Hogar del Marineroren artean lortutakoak erabiltzen baititugu.

Partaideak ere ez gutxi...

Guztira laurogeita hamar inguru izango gara, gizon eta emakume. Gehienak danborra jotzen eta beste zortzi bikote arraunekin eta otarrekin; aurretik, bidea irekitzen, bi lagun Anaiarte Elkarteak bandera eramaten.

Entseguak...

Abuztuko azken astean hasten gara, astelehenetik ostegunera, hiru bat astetan. Azkena, entsegu orokorra frontoian musika bandarekin, danborradarekin batera beti egon den konpainia. Nekez ulertuko litzateke danborrada musika bandarik gabe.

Eta danborradaren ostean...

Mutriku Herria jo eta abestuondoren, dena ondo amaitzeko, Beheko plazako merkatuan partaideak eta laguntzaileak biltzen gara, bertan zerbait hartu eta herriko kantak abesten.

Aurten sorpresa txiki batzuk antolatzen dihardugu.

Ilusioa eta gogoia ez zaie falta Anaiartekoei. Segi holaxe.





DESFIBRILADOREAK ESKURA

Herritarren osasun zaintza erdigunean jarrita, Mutrikuko Udalak desfibriladoreak ipini ditu herriko bi gunetan: udaletxe arkupean, udaltzainen bulego parean bata, moilan, arraun taldearen lokalaren ondoan bestea. Helburua, beharra sor litekeen momentuan erantzun azkarra eta segurua eman ahal izatea. Gainera, formakuntza saioak ere eman dira herritarrek desfibriladoreak erabiltzen ikasteko. Dagoeneko 40 herritarrek hartu dute formakuntza.



JOSEBE ASTIGARRAGA ALKATE OHIA HIL DA

Josebe Astigarragak 2007ko azaroan hartu zuen kargua, Estanis Osinalde Alkatea hil ondoren, eta 2011 urtera arte jardun zuen Alkate. 2003-2007 eta 2015-2019 legegaldietan ere zinegotzi karguan jardun zuen. Alkate egondako aldian bizi izan genuen krisialdian herriko interesak defendatzeko ardura hartu zuelako zor diogun begirunea aurrean ipinita oroit dezagun gure herriko lehenengo emakume Alkatea.



MALEN JAIK IRAGARTZEKO KARTEL LEHIAKETA

Eva Eizagirre Urkiola sortzaile mutrikuarrek irabazi du 2025 urteko *Malen jaiak* iragartzeko kartel lehiaketako saria. Aurtengoan aurkeztu diren sei lanen artean berak egindakoa izan da aukeratua, herriko zenbait elementu erabiliz herriko jai giroa ondo islatzen duen lan koloretsu eta alaiarekin. Iaz egin zen bezala, gaztetxoek kartela Malen Txiki egunean antolatuko den lehiaketan aukeratu da.

RAFA URANGA LEHIAKETA BETEAN

2025 urteko denboraldia hasita, ekainaren 29an korritu zuen Rafa Urangak Euskal Herriko eta Ipar Eremuko motor klasikoen bigarren proba. Lleidako Alcarras zirkuituan izan zen proba. Asteburu gogorra izan zen 41 graduko tenperaturak izan baitzituzten Lleida aldean. Rafak, nahiz eta entrenamenduetan lasterketarien arteko seigarren deborarik onena egin, (Euskal Herriko eta Ipar Eremuko bigarrena), lasterketa orduan ez zuen zorte onik izan... Lasterketako bostgarren itzulian eta bostgarren posturako lehian ziharduenean, matxura elektriko baten ondorioz, lasterketa utzi egin behar izan zuen. Gauza on bakarra, bere errekor berria lortu zuela zirkuito horretan: 1,46" Hurrengo bakarkako lasterketa abuztuaren azken aldera izango da Tarragonako Calafat zirkuituan. Zorte onena opa diogu hurrengorako. Lehenago ere erakutsi zuten bere maila ona Rafak, bere taldeak eta bere motorrak. Kalaputxin adi egongo gara mutrikuarroi haren berri emateko. Argazkian matxura izan zuen uea.



MUTRIKU KLIK EGITERA DOA, eta zu?

Energia trantsizioan aurrerapausoak emateko eta argindarraren sorkuntzan zein kontsumoan ahalduztzeko herri proiektua.

Uda ostean, Klik egitera gonbidatuko zaituztegu!



EUSKADIKO SELEKZIOARI HARRERA

Ekain bukaeran Mutrikuko Udalak harrera egin zion Eñaut Urreisti herriko pilotariari, eta, berarekin batera, harrera bera egin nahi izan zion Nazioen Ligan parte hartu zuen eta garaipena lortu zuen Euskal Selektzioaren talde osoari. Euskaldunontzat hain garrantzitsua izan den mugarrira jarrita, historia egin dute pilotariek, eta mutrikuarrak ere izan du tokia horretan. Mutiletan ordezkaria izanda, pena izan da nesken artean Euskal Herriko, Europako eta Munduko txapelak eta dominak irabazitako Eneritz Lizardi ez egotea, belauneko lesio gaiztoaren sendaketan baitihardu. Mutrikuarrok Eneritz Euskal Selektzioa kide izan balitz bezala hartuko dugu. Ea etorkizunean Eñautek, Eneritzek eta atzetik datozen pilotari gazteek jarraipena ematen dioten aurtengoan Euskal Selektzioa abiatu duen ibilbideari. Berriz ere egingo diegu harrera gure herrian!



ERRUGBI TOPAKETA

Urtero bezela, ikasturtearen bukaeran eskola-arteko errugbi topaketa ospatu zen Mutrikun: Debako Luzaroko, Mutrikuko Goizeko Izarrako eta Samielako eta Ondarruko Zaldupeko eta Zubi-Zaharreko ikasleek hartu zuten parte. Guztira 221 ikasle aritu ziren errugbi-tag modalitatean. Mutriku Rugby Taldeak antolatutako jardunaldi horretan, gazteek ondo pasatzeaz gain, kirol berri bat ezagutzeko aukera izan zuten haietako askok. Kirol honetan ohikoa denez, hirugarren denborarekin amaitu zuten goiza. Datorren denboraldian errugbia probatu nahi duenak ostegunetan edukiko du aukera Mutrikura gerturatzeko. Informazioa nahi izanez gero, mutrikurugby@gmail.com helbidera idatzi.



VITORIAOPTIKA

O P T I K A - A U D I F O N O A K

**AUDIOPROTESISTA
EGUNERO ZENTROAN
AUDIOMETRIA DOAN**

**AUDIFONOAK BERRITZEKO
GURE PROMOZIOEI
BURUZ GALDETU**

IPARRETIK ERRIBERARA

30 URTE GUZTIRA!
Eskerrik Asko!



ERRIBERA 16 • 48700 ONDARROA (BIZKAIA)

94 613 41 38 ✉ optikavitoriaondarroa@gmail.com

GURE AMETSA DANTZA TALDEAK 60 URTE

Uztailaren 5ean Goiko plaza bete zen Gure Ametsa Dantza Taldeak 60. urteurrena ospatzeko prestatutako ekitaldi berezia ikusteko. Dantzariekin batera, herriko Musika Banda, txistulariak, Akordeoi taldekoak eta Abesbatzak izan ziren hain egun seinalatuan. Atzera begirako bat izan zen, neurri batean, dantza tradizionalari keinuak eginda, baina dantzaren ikuspegi modernoa erakusteko ere balio izan zuen argiztapenak jantzitako saioak. Atzera begiratuta gure herriaren kultur produkzioan Dantza Taldeak toki garrantzitsua izan badu, etorkizunean ere ez du toki makalagoa izango, eta ardura horri heltzeko taldean erreleboa ematen ari dela pentsa daiteke oholtzan ikusi zenari erreparatuta. Zorionak herriko dantzarioi, 60 urte betetzea ez delako erraza elkarte batentzat. Bejondeizuela!



UDAKO ZINEA KALEAN

Urteetako ohiturari jarraituz, aurtengo udan ere abuztuko hiru gautan Zabel plazan izango dute hitzordua herriko zinezaleek. Euskarazko filmen tituluak aurkitzea erraza ez denez, bi film gazteleraz eta bat euskaraz izango dira: Abuztuaren 6an Robotia; 13an, Dragoi jagolea; 20an, Los Aitas. Hirurak 22:00etan hasiko dira. Udako gau berotan, Zabel plazan izango dira emanaldiak, baina euria egin edota euria egiteko arriskua ikusten bada, emanaldiak Merkatu plazara eramango dira, ordu berean hasteko.

MARGOLAN ERAKUSKETA

Malen jaietan urterokoak diren ekitaldiak antolatzen dira, eta horietako bat da Pintura lehiaketa, Santixo egunean Mutrikuko Artelagunak Elkartek Mutrikuko Udalaren laguntzarekin egiten dena. Aurtun izango den LXIII. edizioan aurkeztu diren lanak bildu eta Santixo egunetik abuztuaren 3ra bitartea Zabel kultur etxeko erakusketa gelan egongo dira ikusgai bertaratzen diren guztientzat. Gainera, erakusgai dauden lanak erosteko aukera izango da, ohikoa denez.

DANBORRADA ERAKUSKETA

Anaiarte Elkartek Galbaixo bezperan antolatzen duen danborradak hogeita bost urte betetzen duen honetan, Anaiarteko danborradaren urteurrena antolatzeko batzordeak Erakusketa berezia antolatu du Galbaixo jaien aurretik, irailaren 5etik 13ra, Zabelen. Argazkiak eta gehiago erakutsi nahi dira, eta erakusketarako interesgarria izan daitekeen zerbait duenak Anaiartera eraman dezake Erakusketan ipintzeko. Hogeita bost urtetan danborradatik igarotako hamaika mutrikuar oroitzeko aukera ere emango du erakusketak.

ERREPIDEETAKO LAGUNA UDARAKO

Udako oporraldian herriatik irten eta kotxea hartuta egun pasak edo astebetean han-hemenka ibiltzeko planak egitea ohizkoa izaten da. Askotan, gainera, inoiz ibili gabeko inguruak eta parajeak ikustera joateko aprobetxatzen dugu. Garai batean kotxeko leihatila jaitsi eta galdetzea ohizkoa zen bidaletan norabideaz galdetzeko. Paperezko eskuko mapak ere erabiltzen ziren. Baina teknologiak aurrera egin eta demokratizatu ahala, kotxeetan GPS nabigazio-tresnak izatea gero eta kontu arruntagoa da, gure bidaian laguntza ematen digun tresna. Beste batzuk ere badaude merkatuan, baina WAZE izenekoak da euskaraz ditugun bakarretakoa. WAZE gure hizkuntzan emango dizkigu hartzen dugun ibilbidearen inguruko ohartarazpenak. Ezagutzen duenak, jakingo du aplikazioa euskaraz ipin daitekeela funtzionaltasun guztiekin, IOS zein Android sistemetan. Teknologiaren ahots ezagunak dira Siri eta Alexa, baina Wazeren baitan Leire izeneko laguntzailkea izango dugu esan beharrekoak guri goxo-goxo esaten, geure hizkuntzan. Baina hizkuntzarenaz gain, Waze aplikazioak beste ontasun batzuk ere baditu, adibidez, erabiltzaileek, une bereko azkartasunez, beren ekarpenak egin eta parteka ditzaketela gainerako erabiltzaileekin unean uneko trafikoko egoeraz oharrak emateko, arradarren presentziak, istripuez... Guztia modu kolaboratiboan. Egin dezagun aproba aurtengo udan.



ZELAIETA JATETKEA
Olatz auzoa · Mutriku · 943604595
zabalik asteburuetan
eta jai egunetan

Fallen Angels

Momentu guztietan galtzen dugu zerbait. Zerbaiten alde hartzen dugun erabaki bakoitzeko, beste bide bat hartzeko aukera atzean uzten dugu. Aukeratu ahal izan genuen bide horrek gurean eragin ahal duen itzalari erreparatu gabe.

Fallen Angels filmak hiru pertsonaia aurkezten dizkigu, horietako bakoitzaren bizitzeko era kontatuta orain dela ez askoko Hong Kong hirian. Konturatu gabe, edo horixe bera bilatuta, bata bestearen bizitzetan eragingo dute. Hala, inork ez du amaituko amaitzea espero zuen lekuan. Horixe da, bada, bizitza.

Bizi dugun unea disfrutatzea geratzen zaigu, geure buruari buelta gehiegi ematen utzi gabe. Momentu bakoitzean zeren alde egitea pentsatzen jarrita, ez genuke pausorik emango inora, erortzeko beldur. Pentsatzeko astirik ez dagoenean, sentitu. Berandu izan aurretik.

«Etixerako bidia ez da hain luzia...»



FITXA TEKNIKO

Izenburua: Fallen Angels

Urtea: 1995

Zuzendaritza eta gidioa: Wong Kar Wai


Aktoreak: Leon Lai, Michelle Reis, Takeshi Kaneshiro, Charlie Yeung...

Iraupena: 1h 39 min.

(+16 urte)

Bihotz museo bat

Leire Vargas



Leire Vargasen *Bihotz museo bat* liburua poesia intimo eta sentikorraren adibide bikaina da. Poema bilduma honek bihotza «museo» bihurtzen du: esperientziak, oroitzenak eta emozioak gordetzen diren lekua. Egileak maitasuna, galera, oroitzenak eta sendatzea jorratzen ditu hizkera argi eta iradokitzailearen bidez.

Liburua hiru ataletan banatuta dago, eta guztietan nabarmentzen da barne-hausnarketa eta irudi sinbolikoen erabilera: elurra, etxea, bihotza edo itsasoa bezalako irudiek barne-mundua irudikatzen dute. Poemak laburrak dira gehienetan, baina intentsitate handikoak, eta anaforak zein egitura erre-

pikakorrak baliatzen dira emozioen garapena azpimarratzeko.

Estiloari dagokionez, Vargasen poesiak soiltasuna eta hurbiltasuna uztartzen ditu, eta irakurleari bere buruaren inguruan gogoeta egiteko aukera eskaintzen dio. Bihotz museo bat ez da soilik sentimenduen bilduma bat; baizik eta emozioen bidez egindako bidaia bat, minaren aitortzatik askatasunerako bidea marrazten duena.

Udako gau epeletan atsedenerako tarte hartu eta bere buruarekin hausnarrean aritzeko bide egoki eta ederra eskainiko dio irakurleari liburu honen irakurketak.

MUTRIKUKO TANATORIOA

Albia
EHORZKETA ZERBITZUAK

Iriagirre z/g

Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

optika

ALAZNE OPTIKA

Jose M^o Altzibar etorbidea 1
Tel. 943 60 31 54 - alazne.optika@gmail.com

Patxi Beitia Alkorta

Zesta-punta pilotari ohia eta pilotagilea

Hautzarroan frontoi inguruan bizi izanik, hamalau urterekin pilotari izateko ahalegin serioak egiten hasi zen. Kanariar irltako Las Palmasen soldaduzka egitera joan, hango frontoian profesional bezala jarduteko. Zaragozatik pasatu eta Indonesiara salto egin ondoren, AEBetan pilotari eta pilotagile bizitza izan du. Pilota uztean, hegazkinetako segurtasuna zaintzen jardun du jubilazioa hartu arte, baina gerora ere pilotagile lanean dihardu. Mutrikura egin duen bidaia baten izan dugu aukera berarekin solas egiteko.



Las Palmasen, 1969. urtean

Nola gogoratzen duzu hautzarroa?

Hautzarroan eta nerabezaroan bizi izandako zenbait une ditut grabatuta nire garunetan. Mutriku beti presente dut, eta poz berezia sentitu dut nirekin etorri diren bilobei nire jaioterria eta Sabanika kalea erakustean. Sabanika kalean jaioa bainaiz, eta nire gogorapen maiteenak inguru horretan kokatzen ditut beti. Sentsazioa dut ume eta ez hain umeak elkarrekin jolasten genuela, edo gutxienez parte hartzen genuela zenbait jolasetan. Hala ikusten naiz, behintzat, nire anaia nagusia Joxe Antonioren lagunekin batera gure atarian eta inguruan.

Gure bizitza esparru ohikoa Sabanika, Zubixa eta frontoia ziren, eskola ere, mesedeetako ordenakoa, bertan gertatzen zitzaigun... Beraz, munduko beste punta baten bizitzen egon arren, kokagune horretara bideratu izan dira beti nire ametsak. Familia, pertsonak, jolasak, lagunak..., eskolakoak gutxi.

Jolasak aipatu dituzu. Deskribatuko zeniguke horitakoren bat?

Frontoia aipatu dut, eta, jakina, pilota-joko ezberdinetan aritzen ginen bertan. Esan behar, gero nire lanbidea izan zen zesta-punta modalitatean, ezkertia izanik, zesta ezkerrean jarrita hasi nintzela jolasten umetan. Baina horretaz gain, kaniketan ibiltzeko lekua zen frontoia, ume ginela gure adineko neskekin sukaldeko jostailuekin, futbolekin, eta zirko ere bilakatzen genituen hango eskailera zein burdinazko baranda eta sareak eusteko hagak. Jakina, trapezista lanetan, gutxi izango ginen erorketarik izan ez genuenik. Nik, behintzat, bukatu nuen behin medikuari bisita egiten.

Gure etxeko atarian genuen lokala zen leku preziatuenetako bat inguruko umeentzat. Gauza askotarako erabiltzen genuen, sagardoa ere inoiz egin zela gogoratzen naiz, baina garrantzizkoena zen aroztegiko lanabes asko genituela, tresna asko sortzeko beharrezkoak



Patxi, korrikalari taldean, 1965. urtean

zirenak. Zezenketak egiteko, lehenengo harakin bati idi-adarrak eskatu, lurrazpian hiru egunetan gorde barneko gaia askatzeko, eta, ondo garbitu ondoren, egurra prestatzen genuen adar barnetan sartu, biak bat egin eta larru eta txintxetez hornitzean prest zeuden zezen lanak egiteko. San Juan suak egiteko, sasi bila joaten ginen mendi aldera, aizkora txikiekin moztu eta multzo handiak prestatzen genituen, gero arrastaka Azkiagako tunel azpian eurtik babestuta lagatzeko; horretarako, burdinazko kakoak prestatzen genituen egurrezko haga bati lotuta multzoari tira egiteko, eta porkatxa —bi adarreko haga— luzeak atzetik bultzatzen egiteko. Goiti-beherak ere egiten genituen Matxeteneko karroa prototipo hartuta, eta ahal genuenean fruta-kaxa jartzen genion gainean, han barnean kokatzeko.

Beste ohiko jokoak genituen harrapaketa, kateka, tronpatan, soka-saltoan neskekin, ezpatetan..., eta arriskutsuren bat edo beste ere bai. Une baten modan jarri zen “si no te agarro te caes” —bultzatzen eta heldu oreka—, eta ez dut aipatuko nork, baina orain tanatorioa dagoen gune hartan, horrelako bat egin zidan, heldu huts egin eta han joan nintzen sasi eta adar tartean behera astillero parera. Otoitzean zebilen apaizak entzun negarrez, eta Zumalabeneko langileek atera ninduten sokekin helduta.

Eta nola hasi zenuen pilotari profesionalaren ibilbidea?

Arestian aipatu bezala, frontoia zen gure jolas-tokietako bat, eta, jakina, zesta izan zen umetako jolas-lanabesa, poliki-poliki serioago hartzen joan nintzena. Osaba Antonioren —amaren neba— etxean nintzen 14 urterekin (1966) egun batzuk pasatzen Durangon, eta saiatu nintzen bertako frontoian zen txapelketa baten parte hartzen, baina oztopoak jarri zizkidaten gipuzkoarra nintzelako. Hurrengo baten Garellanoko banda militarra etorri zen Mutrikura, eta, bertako kapitaina tarteko, lortu zuen aitak soldaduzka boluntario egitera joateko aukera izatea Las Palmasen. Ama hil berri, anaiak lagundu zidan Madrilera. Handik Cadiz-era eta barkuan kuarteleraino. Hiru hilabete Tenerifen kanpamentua egiten, eta berriro Las Palmasera itzulita bertako frontoian hasi nintzen pilotan 16 urterekin, 1968ko ekainaren 19an. Urtebete pasan jokatu nuen, soldaduzka bukatu bitartean.

Berriro Mutrikura bueltatzen aitarekin aroztegiari hasi nintzen

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U

ERAIKETAK

Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938

e-mail: astigarragamutriku@outlook.es

Txurruka Tteak., 28 behe - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

APALLU
ITURGINTZA

Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61

San Agustín, 3 - Mutriku

apallu@apallu.es

www.apallu.es



Ocalan, 1976. urtean



Daniako frontoirako 200 pilota, 2012. urtean

lanean. Las Palmaseko intendenteak aroztegiari ari nintzela jakitean, Yakartarako proposamena egin zidan —Java-ko irlan dagoen Indonesiako hiriburua—, baina frontoia konpontzen ari zirela-eta, bitartean Zaragozan jolasteko aukera eman zidan. Horrela, 1969an eta 1970 urteetan aritu nintzen Zaragozan Yakartara salto egin aurretik. Aragoiko hiriburuan nengoela, bazegoen gure artean pilotari kontratu gabea, pilotak konpontzearen truke jokatzeko aukera eta kontratua egin ziotena. Nik piloten larruak josten esku polita nuenez, laguntza eskatu zidan, eta irabazitako dirua partitzen genuen. Hark, noizbehinka, pilotak ere egiten zituen Bartzelonatik ekarritako latexarekin. Zeharo interesatu nintzen ofizio hartaz, gero nire bizitzan garrantzi handia izatera gertatu dena.

Kontatuko diguzu jarraian izandako pilotari ildoak?

Mutrikun hainbeste pilotari izanda, ondo dakite herritarrek nolakoa den gure bizitza frontoi inguruan. Soilik nahi nuke aipatu Yakartan nintzela han genuen intendenteak erakutsi zizkidala zuhaitz berezi batzuk, eta euren izerditik lortzen zuten kautxua ateratzeko latexa. Erretxina antzeko material hori egoera puruan, oso elastikoa da eta piloten muina, lakaina, egiteko erabiltzen da. Pasta bezala zabaltzen da kristalean eta sikatzean tirak egin eta, ez pegatzeko paperez bildu ondoren, gordetzen da gero pilotak egiteko. Bertan egin nituen lehen aldiz 20-25 bat pilota hango frontoian izan nintzen hiru urteetan.

Hurrena, Ameriketako Estatu Batuetara egin nuen salto, eta Floridako estatuko Daytonan hasi nintzen pilotan, baina bi hilabetera frontoiak su hartu eta, kontratuarekin arazoak izan ondoren, Tampako frontoira pasatu nintzen, eta pilotagile lanean aritu nintzen, lau urtera jokatzeko aukera izan nuen arte. Enpresa bereko Ocala eta Fort Pierce frontoietan jardun nuen beste sei urtetan pilotari eta pilotagile bezala.

Hurrengo saltoa Connecticut-eko estatuko Hartford-ko frontoira egin nuen, baina kontratua izan arren, ezkondua nintzen jada eta erretiratzea erabaki nuen, berriro Floridara bizitzera joateko.

Pilotatik erretiratuta, jarraitu zenuen frontoiarekin harremanetan?

Ez nion sekula pilotagile izateari utzi, poliki-poliki hasi banintzen ere, gustua hartu nion onak ateratzen zitzaizkidalako. Hala ere, eguneroko lana hotel kate garrantzitsu baten egiten hasi nintzen. Hegazkinetarako jakiak prestatzera dedikatzen ginen, baina 2001eko irailaren 11ko dorre bikien eraso izan zenean, utzi egin zuten lan hori, eta hegazkinen segurtasuna zaintzera dedikatu zen, eta ni gainbegirale postuan jarri ninduten. Hor jarraitu nuen 2017ko abenduan jubilatuta nintzen arte.

Elkarrizketa hau egiten ari garen honetan, iloba bat ekarri duzu ikasketak Donostian jarraituz...

Bai. 1976ko otsailaren 2an ezkondu nintzen eta bi alaba eta semea izan genuen. Zazpi biloba ditut egun. Horietako bat, bigarren alabaren alaba zaharrena da Donostiara etorri dena.

Pilotagile lanera bueltatuta, non saltzen dituzu pilotak? Eta zeintzuk dira pilotaren bitxikeriak?

AEBetako frontoietan eta Euskal Herriko Ipar zein Hegoaldeko frontoietan. Nirekin batera, badira beste pilotagile batzuk ere. Ez asko.

Aipatu izan dudana bezala, latexa da lehengai garrantzizkoena. Gero eta zailagoa da eskuratzen, eta garestia gertatzen da. Ehun litroko ontzietan saltzen dena da ohikoena, eta New York zein Kaliforniako Los Angelesetik lortzen dut, Indonesia eta inguruko herrialdeetatik inportatzen dutena.

Pilota egiteko barneko bola edo lakaina egiten da latexa asko tiratuz; gainetik haria jarritz iritsiko gara nahi dugun tamainara, eta larruzko bi azal josten dira gainean. Latex kantitateak ezarriko du pilotaren bizitasuna edo moteltasuna. Frontoia lutzeraren arabera prestatzen dira bertarako egokienak. Larruan pisua markatzen zaie, pilotariak aukera dezaten euren joko-moldeari hobekien egokitzen dena. Pilota erabiltzen joan ahala asentatzen joaten da, eta erantzun egokiagoa ematen du berri baina.

Ez naiz saiatu prozesua automatizatzen; haria lotzeko makinek emaitza ona ematen dute, baina latexak arazoak ematen ditu, eta ez dut ezagutzen hori ondo bilduko duen makinarik.



zure negoziaren berri
mutrikuar guztiei emateko

KALAPUTXI

aldizkaria@kalaputxi.eus

ITSASOKO BAINURIK EDERRENAK, SATURRARANEN

Beroari aurre egiteko ez dago bainu eder bat hartzea bezalakorik. Ur gezatan nahiz gazitan freskatu gaitezke, jakina, baina itsaso aldamenean egonda... Herrigunetik irtenda, joan gaitezen Saturrarana eta murgildu gaitezen bertako uretan, bertako historian.

XIX. mendean gizarte-maila jakin batetik gorako familien artean bainuetxeetara joateko ohitura zabaldu zen, osasunerako ona zelakoan. Batzuek lehorreko bainuetxeetara jotzen zuten, iturri sendagarrietako uren bila. Horietako bi aipatzearren, Zestoakoa, 1804. urtean eraikia, edo Urberoagakoa (Markinan), 1870. urtekoa. Beste batzuek, berriz, nahiago zuten itsasoko ura, eta irrikia egoten ziren uda noiz ailegatuko itsasertzera joateko atsedeen bila.

Aurreko batean azaldu genuen bezala, 1848. urtean bainuetxea eraiki zuten Mutrikuko portuan. Handik urtebetera hau idatzi zuten Madrilo «El Heraldo» egunkarian: *los baños de mar se toman con más comodidad en San Sebastián, Deva o Motrico que en Biarritz, donde la playa es incómoda y expuesta*. Ez zegoen orduan hondartzarik portu inguruan, eta beharbada Saturrarango hondartza izango zuen buruan hori idatzi zuen kazetariak.

Antonio Trueba (1819-1889) idazleak Saturrarango ingurua bisitatu zuen 1863. urtean. Bisita hartaz hau idatzi zuen 1865ean: *la hermosa playa de Saturrarango atraerá gran número de forasteros durante el verano (...) se llenará de casas de recreo y edificios donde puedan hospedarse los bañistas*. Ez zen batere iragarle txarra, ez horixe!, bete-betean asmatu zuen eta.

Artean ez zegoen bainuetxe eta ostaturik, bi etxe baino ez: Saturrarango baserria eta Barrenerrota (edo Barrenengoa) izeneko errota, biak XVI. mendetik dokumentatuak.

1861. urtean udalak bide berria egin zuen Mijoko Etxeberri baserritik Saturraranoan, Barrenengoa etxearen paretik. Bidea egitea ez zen inbertsio makala (14.121 erreale), baina Udalak garbi zeukan helburua, *el camino proyectado tiene por objeto facilitar la mayor afluencia de los forasteros para tomar los baños de mar*. Horrek esan nahi du ordurako kanpoko jendea hurbiltzen zela hondartzara. 1865ean, berriz, zuhaitzak landatu zituzten bide horretan; eta, handik hiru urtera, txukundu egin zuten bidea, *para el mejor transito de los carruajes que se dirigen a la citada playa*.

Bainularientzako lehen osatuta, guk dakigula, Barrenengoa etxean egon zen. 1867ko urtarileko kontratu batetik dakigu etxea Manuel Osarena zela, eta ordurako hainbat konponketa eta obra egin zizkiola ostatu bihurtzeko, *para hospedería de las gentes que vienen a tomar baños de la mar en las temporadas del verano*. Ostatua bost urte eta erdirako eman zion errentan Francisco Agirre elgoibartarrari. Kontratuaren baldintzetako bat zen neguan, bainularirik ez zegoen bitartean, jabeak gela bat erabiliko zuela bertan bizitzeko familiarekin.

1871ko apirilean etxea “casa fonda llamada molino de Barrenengoa” izenez azaltzen da. Manuel Osak Juan Astigarraga mutrikuarrari saldu zion 37.500 pezetaren truke. Ez zen etxe txikia, 434 metro karratu zituen.

Errastiren bainuetxea

1868ko udan Saturrarango bainularientzako ostatu berria zabaldu zuten: hiru solairuko bainuetxe ezin dotoreagoa. Jose



Saturrarango, 1884. urtean

Errasti eta Jose Agustin Etxeberria elgoibartarren eskutik etorri zen proiektu hura. Pedro José Astarbe arkitekto durangar ezagunak eraiki zuen.

Maila handiko bainuetxeetan ohikoak ziren erosotasun guztiak zituen: *magníficos salones dispuestos para baile, juegos de tresillo, de billar y tertulia*. Irakurtzeko gela eta pianoa ere bazituen, baita kapera bat ere. Bezeroek arrantza egiteko itsasontzi bat erabil zezaketen, *una linda lancha para el entretenimiento de la pesca*.

Estatuko puntu askotatik joaten ziren bertara, maila sozial altukoak gehienak. Saturrarango lekuaren erosotasunak, giro osasuntsuak eta bainuek ez ezik beste zeozek ere erakartzen zituen bezeroak: harremanek eta ondo inguratuta egon nahi izateak, *delicioso punto de reunión de las personas de buen gusto*.

Urte hartako prentsan “Gran hospedería” edo “Fonda marítimo-balnearia” izenez agertzen da Mijoa errearen ezkerrean egon zen bainuetxe hura. 1872an “Establecimiento Marítimo Balneario” esaten zioten.

Urte luzez Jose Errasti eta bere familiaren esku egon zen bainuetxea, harik eta, jokoak eragindako zor batzuk tarteko, 1897. urtean jabetza galdu zuten arte. Simón López madrildarrak eskuratu zuen. 1898-1918 urteetan “Gran Hotel” edo “Gran Hotel de Saturrarango” izenpean agertzen da.

Ostatu eta bainuetxe ugari

Nahiz eta Errastirena Saturrarango lehenengo ostatua ez izan, inflexio puntua markatu zuen. Ordura arte jende gutxi hurbiltzen zen Saturrarango hondartzara; esan daiteke eraikin handi eta dotore hark mapan jarri zuela Mutrikuko toki eder hura.

1872. urterako lau establezimendu zeuden Saturrarangoan. Guztien ahotan zegoen bertako hondartza ederra, ia aldaparik gabekoa eta hondar finekoa; askok aipatzen zuten abaniko itxurako harkaitz ilara batek babesten zuela.

Establezimendu horiek, guztira, 300 lagun har zituzketen. Denboraldi bakoitzean (udan) 1.800 lagun inguru joaten ziren Saturrarango.

1875. urte inguruan bost ostatu zeuden: Barrenengoa, Errasti,

Astigarraga, Vista Alegre eta Miramar.

«Guía General de Guipuzcoa» (1898) liburuak lau ostatu aipatzen ditu: Gran Hotel, Fonda de la viuda de Astigarraga, Fonda Buenavista eta Fonda de Zacarías Maiztegui.

Izenak aldatzen zituztenez, ez da erraza zehaztea kasu guztietan zein den izen bakoitzaren atzean ezkutatzen zen ostatua.

Barrenengoa ostatua tarteka “Fonda de Manuel Osa” (1884) izenez agertzen da. Astigarraga osatua, berriz, “fonda de Juan Astigarraga” (1882) izenarekin agertzen da; jabea hil eta gero (Juan Astigarraga, 1832-1883) “fonda de la viuda Astigarraga” (1891) edo “hotel Astigarraga” (1900-1916) gisa agertzen da.

Buenavista ostatua “fonda llamada Buenavista” (1882) edo “Hotel Buena-Vista” (1911) izenekin azaltzen zaigu. Galdoa alderako mendi-magalean egon zen, karabineroen etxerako bidean.

Gran Hotel izenekoaren aldamenean, itsaso aldera, “Villa Capricho” (1914)egon zen. Aurretik zein izen izan zuen eraikin horrek?

Miramar ostatua “fonda de Miramar” (1886), “Fonda Miramar” (1891) eta “Hotel Miramar” (1907) izenez dokumentatzen da. Azkenik, “Vista Alegre” (1875) izeneko ostatua behin baino ez zaigu agertu.

Saturrarango hondartzak gizarte-maila altuko jendea ez ezik, historian euren tokitxoaren dutenak ere erakarri izan ditu. 1874ko abuztuaren hasieran, azken karlistadan, Karlos Maria Borboi (1848-1909) erregeaia eta karlisten burua heldu zen Markinara. Handik, egunero joaten zen zalgurdi batean bainuak hartzera, goizean Urberoagara eta arratsaldean Saturrarana, *por la tarde toma los baños de mar en la playa de Saturrarán*. Abuztuaren 20an Saturraranerako joan-etorrian segitzen zuen, *el Pretendiente sigue bañándose en Saturrarán. Anteayer se ahogó uno de los individuos del batallón sagrado que le acompaña*.

Udako kolonia

Udatiarrek bisitatzen zituzten bainuetxe gehienetan herria edo herrixka zegoen, Saturraranen ez. Esan daiteke udako kolonia bat zela, udako bainularirik gabe hustu egiten zena udazkenean.

1872an Madrildik-eta zetozenek Norteko ferrokarrila hartzen zuten Zumarragaraino, eta handik Saturraraino zeuden 46 kilometroak diligentzian –*omnibus*– osatzen zuten, lau ordu eta erdiko bidaian. 1896an, aldiz, Debako tren-geltokiraino heltzen ziren eta handik automobiler 40 minutuan bazeuden bainuetxeetan.

Estatuko prentsak toki berezia eskaintzen zien bainuetxeei oro har, eta Saturrarango hondartzaz jardutean hitz gozoak agertzen zituen: erosotasuna azpimarratzen zuten, *cuya playa es la mejor del Cantábrico para tomar baños, por la fuerza de sus olas y la planicie de su fondo* (1885); segurtasuna ere bai, *la seguridad que ofrecen a los bañistas por su firme piso de sedosa arena y por los pintorescos y variados paisajes* (1892).

Madrilgo «La Justicia» egunkariak (1889.08.16) dakarrenez, udan Saturrararen aterpe hartzen zuten bisitarien lehenengo egunetan euskara ikasteko asmoa agertzen zuten, *aprender el dialecto del país*; baina, azkeneko hitz gutxi batzuk baino ez zituzten ikasten, *pero al fin suelen contentarse con saber decir, sí, no, y alguno que otro aprende á dar las gracias y á pedir leche... confían a la mímica lo que no pueden conseguir del lenguaje*.

Jantzi eta soineko dotoreak alde batera utzita, honela ibiltzen Saturrarango bisitariak: *traje sencillísimo de playa, un quita-sol y un sombrero de paja* (1892).

Kalitatezko eskaintza

Bainuetxe eta establezimendu gehienak uztailaren 1etik irailaren amaiera arte baino ez zituzten zabaltzen.



Saturrarango hotelak

Ostatuetako jabeek diru inbertsio handiak egiten zituzten euren apopiloiei berrikuntza, aurrerapen eta erosotasun guztiak eskaintzeko. Bezeroak eurenera erakartzeko, udako denboraldia heldu aurretik, horren berri ematen zuten prentsako iragarkietan. Nolabaiteko lehia ere sumatzen da ostatuen artean.

Gran Hotelek duchas y baños de mar calientes (1898) eskaintzen zituen; edo *baños cubiertos, duchas y regaderas de agua del mar* (1899), baita eguneroko meza eta erosarioa ere Gran hoteleko kaperan (1906). Puntako teknologia ere bai: *telégrafo, teléfono y luz eléctrica* (1912).

Astigarraga hotelak, berriz, inguruko elementuak aipatzen zituen: *lindos paseos con arbolado, emparrado, capilla, hermoso frontón* (1908), edo *carruajes para paseo, primorosa capilla* (1909); eurek ere, nola ez, teknologiarik aurreratuen zuten: *luz eléctrica, inodoros* (1912).

Buena Vista hotelean 12:30ean bazkaltzen zuten eta 20:30ean afaldu. Itsasoko bainuen prezioa: *cada baño, con caseta y bañero, 0,50 céntimos* (1911).

1883an telegrafoa heldu zen Ondarroara. Inbertsio horren atzean Saturrarango bainuetxeak egon ziren. Bezeroak pozik eta eroso eduki nahi zituzten, *unida a la red de telegráfica de Marquina, contribuye con la mitad del coste D. José de Errasti, dueño del establecimiento balneario de la próxima playa de Saturrarán*. 1910eko martxoan heldu zen telefonoa Saturrarana, *la estación del teléfono provincial en Saturrarán*.

Gainbehera

XX. mendearen hasieran, poliki-poliki, bainulariak galtzen joan zen Saturrarango hondartza. Ostatuak ez zuten garai bateko arrakastarik, eta, errentagarritasunik ez zutenez, salgai jarri zituzten. 1907. urtean salgai edo alokairuan jarri zuten Miramar hotela, 1914an salgai jarri zuten Barrenengoa ostatua, Gran Hotel de Saturrarán ospetsuak ere bide bera hartu zuen 1918. urtean.

Azken urte horretako urrian, Madrilgo «Alrededor del mundo» aldizkariak gainbehera horren berri eman zuen: *la pequeña y apacible playa de Saturrarán, en un tiempo muy concurrida por los veraneantes y bañistas, hoy casi olvidada por el atractivo que otras villas y ciudades de la costa, sus vecinas, ofrecen al viajero*.

1921. urtean Pedro Ikatzak eta bere familiak dohaintzan eman zioten Gran Hotel bainuetxea Gasteizko Elizbarrutiari, eta Seminarioa jarri zuten bertan. Eliza, ondoren, gainerako eraikinak erosten joan zen: Astigarraga hotela (1921), Barrenengoa (1924), Buena Vista (1926)...

Gran Hotel izandakoari Mesedeetako Ama Birjina (*Nuestra Señora de las Mercedes*) izena jarri zioten; Astigarraga hotelari, berriz, “San Pelayo”, bertako kaperan martiri horren erlikia zegoelako.

Baina hori beste garai bat izan zen. Aurrerago, garai beltzak helduko ziren, sasoi bateko ostatu eta bainuetxe dotoreak emakumeen espetxe bihurtu zituztenean (1938-1944).

Josu Larrañaga Arrieta

MADALEN AUZOAN UDA HASTEKO ANTZEZPENEA

Udako solstizioa heltzearekin batera, egun luzeena eta gau motzena dugunean, Madalen auzoko elkartopagune ederrean elkartzen dira duela zortzi urtetatik hona Madalen auzotarrak eta haiek gonbidatuta herritar guztiak.

Bi urte lehenagotik auzotar batzuk batzen hasi ziren auzo bizi bat izan nahi zutenaz auzoko jaiak antolatu behar zituztela ilusio hartuta. Horretarako, data bat aukeratu behar zen, eta zalantzatan ibili ziren. Beste egun batzuen artean, maiatzaren 15a aipatu zen, Olatz bidearen aitzakian baserritarren eguna gogoan hartzeko; San Juan bezpera ere agertu zen... Ezagun denez, San Juan bezpera eguna hartu zuten auzoko jai nagusia antolatzeko. Eta gauzak horrela, zortzi sorginekin eta Akerbeltzekin hasi zen guztia, antzezpen xume baina polit batekin.

Lehenengo urte hari hurrengo urteak jarraitu zitzaizkion eta urtero-urtero pertsonaia mitologiko ezberdinak gehitzeko asmotan, Mutrikuko beste txoko batzuetako lagunak gehitu ziren, Arno inguruetaoak, portuko sorginak... Eta azpiegiturak ere hobetzen joan dira urteen poderioz. Gaurdaino!

Bide horretan zehar asko izan dira laguntza eman duten lagunak, auzotarrak zein herritarrak. Iaz herriko jostunak omendu zituzten, beraiek egindako jantziak hain komenigarriak direlako Madalena auzokoa moduko antzezpenetan. Euskal mitologiako pertsonaia bakoitzari bere esentzia ematen diote oihal eta hariak erabiliz

Aurreko urtean jostunak hartu zituzten bezala, aurten, ekainaren 21ean egindako saioan, auzoko jai egunean antolatzen den antzezpenean horrenbesteko laguntza eman dieten beste lagun batzuk hartu dituzte gogoan eta omena egin diete: Goizeko Izarra Antzerki Taldea.

Urte askotan zehar, gure herriko plaza eta txoko ezberdinak artez eta pasioz bete dituzue. Zuen ahotsak, keinuak eta bihotzak hitzei bizia eman diete. Ez da erraza hitzez adieraztea zenbat eskertu nahi dizuegun egiten dezuen lan isil baina sakon hori. Antzerkia ez da bakarrik entretenimentu bat gure herriarentzat. Zuek kontatu dituzuen istorioetan, geure egunerokoa, geure ametsak, geure beldurrak, geure historia ikusi ditugu. Eta horregatik eman nahi dizkizuegu eskerrak. Zuek gabe gure herriko kultura zati handi bat isilduko litzatekeelako. Gaurko eguna aprobetxatu nahi dugu zuei omenaldi xume baina bero hau eskaintzeko.

Eskerrik asko, bihotzez, gure bihotzak ukitzeagatik eta herriari bizitza eta nortasuna emateagatik. Zuen antzerkiaren suaren argiak luze iraun dezala!

Gora Mutrikuko Goizeko Izarra Antzerki Taldea! Gora Zuek!

Madalen auzoa



@madalenaauzoa 🔥



ALDAPAN

Barrenkaletik
ALDAPANera
beti gure bezeroen
zerbitzura



Atxitxin aldapa 5 (bis) Tel. 943604512

ARRIZABALAGA

Okela eta janari prestatuak

Gora Malenak!

KOLDO LIZARZABURU APERRIBAI

ERRUGBI EPAILEA

“Epaile gazte gutxi gaude, eta hori kezagarria izan liteke”

Koldo Lizarzaburu Aperribai (2006) errugbi epailea da, eta 2024-25 denboraldi amaitu berrian goi mailako partiduak arbitratzera heldu da. Mutriku Rugby Taldean (MRT) eman zion hasiera bere rugbi ibilbideari. Aurten, Arrasate Rugby Taldeko (ART) senior mailan jokatu badu ere, epaile lanetan jardun du han eta hemen.

Noiz hasi zinen errugbian?

Hamar bat urte nituela hasi nintzen errugbia praktikatzeko, aldi berean futbolekin ere aritzen nintzen, baina, azken hori alde batera uztea erabaki nuen; errugbian zentratuz. Horrela hamabi urte azpikoen topaketetan hasi nintzen parte hartzen, eta esan beharra daukat hasiera haietan makal xamarra nintzela, ordea, denborarekin ikasten joan nintzen eta aldi berean kirol honetaz gozatzen; gaur arte.

Zein oroitzen dituzu hasiera haietaz?

Bada, hasiera hartan ez ginen asko kirol hau praktikatzeko izena eman genuenak. Pixkanaka-pixkanaka animatzen hasi ziren gure ingurukoak, eta taldea osatzeko aukera izan genuen. Egia da gaur egun ere zaila dela kirol honetara jendea erakartzea; beti ibili izan gara justuan. Izan ere, gure herrian futbolak indar handia dauka, eta gurasoek nahiago dute beraien seme-alabak bertara eramatea. Nik zortea izan nuen, amak animatu baininduen errugbia praktika-tzera, eta hemen nabil oraindik horretan. Familian, gainera, osaba errugbi-laria izan zen. Hala ere, nik ez nuen ezagutzen kirol hau eta hutsetik eman nion hasiera.

Zure ibilbidean talde ezberdinak ezagutu dituzu...

Bai, hala da. Mutrikuko taldean hasi nintzen. Urte haietan taldea osatzeko zailtasunak izan genituen, eta, ondorioz, Eibarkoekin elkartzen ginen. Urteak aurrera, hamalau urte azpikoen taldea osatzeko aukera izan genuen mutrikuarrok. Eta, hamasei urte azpikoe-tan, Zarauzko taldekideekin elkartu ginen. Jarraian, Eibarko taldean pare bat urte eman nituen, baita Arrasatekoekin ere. Aurten ere, senior mailan Arrasateko taldekidea izan naiz. Lesioak ere izan ditut, baina baita gozatzeko aukera ere. Eta, nola ez, Zarauzkoak ere aipatu behar ditut, bertan pare bat urte egin bainituen. Oroitzapen politikak ditut. Izan ere, inguruan eredu diren taldeak ere baditugu: Gernikak, Zarautzek, Getxok eta Bilbok Espainiako bigarren mailan dute taldea. Ordiziak, berriz, lehen mailan lehiatzen du.

Jokalari izateaz gain epaile lanak ere egin dituzu. Noiz eta nola hasi zinen?

Hemezortzi urte bete nituenean eta denboraldiari hasiera eman genionean Igotz Gallastegi entrenatzailea etorri zitzaidan aipatuz epaile izateko ikastaroak ireki zirela. Animatu, eta horrela hasi nuen ibilbide berria; eta esan beharra daukat oso gustura nabilela epaile lanetan. Hasiera baten Euskal ligan egin nituen nire lehen pausoak: Gipuzkoan, Araban, Bizkaian eta baita Nafarroan ere. Iparraldean ere izan dut aukera epaile lanak egiteko. Ondoren, Espainia mailako partiduetan linear lanetan ibili naiz. Esperientzia oso aberatsa izan da, jokalarien maila oso ona baita eta beti ikasten da zerbait. Horretarako eta nire burua ongi prestatzeko araudiari buruzko liburu asko irakurri ditut, ez baita errugbiko araudia erreza, nahiko konplikatu da.

Zerk erakartzen zaitu epaile lanetik?

Egia da errugbian epaileak daukan irudia ez dela futbolekin daukana. Errugbian epaileari, jokalariei bezala, errespetuzko trataera ematen diote bai ikusleek bai parte hartzaile guztiek. Egindako lana dela-eta sekula ez dut irainik jaso. Partidetatik bueltatu nintzen baten amonak zera esan zidan: “zer, zure amarekin askotan gogoratu al dira ikusleak?” Umorez hartu nuen amonaren kezka, baina, berari azaldu nion bezala, errugbia ez da futbola. Partiden ondoren entrenatzaileekin bezala jokalariekin ere hitz egiteko aukera daukazu, eta bertan jokaldiak komentatu eta zuzentzen ditugu. Azkenean, nik neuk ere nire lana ebaluatzeko aukera daukat; gaizki egin ditudanak zuzentzeko aukera ahalbidetzen du horrek guztiak. Errugbian, alegia, txikitandik bizitzarako balore horiek bultzatzen eta lantzen dira. Jarrera hori da erakusten dena. Beti dago aparteko kasuren bat edo beste, baina, orokorrean, errespetua da errugbiaren zutabea. Hortaz, nire lana da jokalaria lasaitzea. Horrez gain, errugbiak hirugarren denboran taldeen arteko harremana bultzatzen du: hori ezin hobea da. Beste kirol guztietara hedatuko nuke ohitura hori, bertan kontrako taldekideekin harremanetan jartzeko aukera baituzu, lasai hitz egiteko denbora eta esan beharrekoak esateko aukera.

Oztoporik izan al duzu bidean?

Epaile gaztea naiz oraindik ere, baina errespetuzko tratua jaso dut joan naizen alde guztietan. Epaile gazte gutxi gaude, eta kezagarria izan liteke. Egia da lan honetan norberak egin behar duela ahalegina besteen errespetua irabazteko. Lan handia egin, eta araudiari buruzko liburu asko irakurri eta ikasi behar dira.

Mutrikun errugbia berpiztu zuten haiei zer esango zenieke?

Beraientzat esker hitzak besterik ez ditut, bai Alex Barrenetxea, Igotz Gallastegi, Jose Alvarez... horiek izan baitziren gure lehen entrenatzaileak eta hutsetik hasi ziren gu guztiok: Errugbiaren baloreak erein zituzten. Haien lanari esker nago gaur epaile lanetan eta errugbiarekin gozatzen. Eta, gurekin egin zuten bezala gaurko haur eta gazteekin ere lan bera egiten dute. Nire aldetik mutrikuar haur guztiak errugbia probatzera animatuko nituzke; denek baitute lekua taldean.



ospakizunak, bazkariak, bataioak, eguneko menua...

SAN JUAN JATETXEA

Mutriku-Deba errepedea, Laranga auzoa

Tel.: 943603167 (jatetxekoa)

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia

MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20

ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

ITSASOKO HAIZEEK ONDUA, IDAZLARIK OHORATUA

Moilako etxearen ibilbidearen norabidea ezagututa, igo gaitzen orain Tranpa kale pikoan barrena Atxatxin kalera eramaten gaituen kale malkartsurantz. Han dirau zut apaltasunez, urte luzez Mutrikuren eguneroko bizimodu zalapartatsuaren, eta, nola ez, baita herriak jasandako hamaika gertakari gazi-gozoren lehen mailako lekukoa izan dena. Adi diezaigun, beraz, haren harlanduzko hormei gurean jazotakoak, denborak baizik ematen ez duen patxada eztiaren agertuko digunari.

Gaurko etxearen zantzuan aztarrika eginez, sendiaren sorburu izan zen Berriatuako Azterrika auzoan dirauen Garduza baserria garamatzate oraingoan. Nolanahi ere, XVI. mende erdialdeaz geroztik jada aurki ditzakegu Mutrikun haien zuztarreko lehen senideak. Mende horren hondarrean Francisca Yurrerekin ezkontutako Joan Beltranek jartzen gaitu lehenengoz, gero urteetan etxe horri atxikita iraungo zuen familiaren norabidean. Haiengandik jaiotako Joan eta Domingo semeak izango dira familia-adarraren lehen kimuak, eta, beraz, hedatuko dutenak haien deitura Mutrikuko kaleetan zehar. 1639an berrogeita bat urterekin hil zen Domingo seme gazteenak jarri zuen abian etxe horren gerizpean gaur ezagutzen joango garen sendiaren oinatzak. Hastapenetik ondoriozta genezakeen bezala, aipatutako Domingok Garduza zeraman abizena. Hura Antonia Ascarzarekin ezkondu zela dakusagu 1624an, eta zazpi seme-alaba jaio zitzaizkiela. Zazpi haietako bigarrena zen Franciscak eman zion, berriz, Achachindik parrokiara jaisten zen kalean zuten sendiko etxeari jarraipena 1648an Pascoal Aguirre-ekin ezkontuta. Haiek bost seme-alaba izan zituzten, bikiak azken biak, hain zuzen ere.

Pascoal Aguirre itsas gizona izan zen, arrantza txalupetan patroia, eta, ziurrenik, ontziren baten jabe ere izango zen. Ternuarako balea arrantzaldia lazgarria eta arrisku handikoa izanagatik, diru iturri oparoa ere bazen herritarrentzat. Lan gogor hartan jardundakoa zen Pascoal lurralde urrun eta arriskutsu haietan. 1643ko agiri baten bidez dakigu aurreko urte amaiera aldera, beste bost mutrikuarrekin batera, eta hogeita lau urte inguru zituela "...Ternuatik lurralde honetara zetozela Esteban Ortega kapitainaren agintepean zegoen Donostiako galeoi bateko eskifaian, mairuen pirata-ontzi batek bahitu, eta haien lurraldeetara eraman zituzten ontziarekin batera. Gaur egun, Tetuango ziegetan daude nahigabe asko nozitzen, haien etxeetara helarazi dituzten datzietan adierazi dutenez...". Maiz gertatu ohi ziren jazoera larri horien aurrean, Lucas

Urquiaga mutrikuar kapitainak horrelako larrialdietan gertatzen ziren herritarrek laguntzeko ongintza memoria bat sortu zuen haren azken asmo bezala. Memoriak bazuen, nolanahi ere, bigarren eginkizun nagusia ere: herriko neskak behartsuak ezkontza bidean laguntzea. Berrehun dukatu bideratu ohi ziren urtero bi betebeharrakarako. Haren ardura zuten udal agintariak urte hartan bost gizon zirela ikusirik, onena denak batera askatzea iritzi zioten. Memoria hartako hurrengo hiru urteetako diru guztiak askapenera bideratzea ebatzi zuten, uste baitzuten hala egin ezean haien etxeratzea gehiegi luza zitekeela. Pascoalek bazekien zerbait jazoera horien gordintasunaz, haren aita Miguel ere egoera berean Argelen hil baitzen berak bost urte baino ez zituela.

Pascoal Aguirre, ikusi dugunez, balea ehiza kontuetan ibilia eta zaildua zen. 1670ean, bale baten harrapaketa batean debarrek mutrikuarrekin izandako ezadostasunak tarteko, kontuak onbidean jartzeko bileran dakusagu. 1680an, bestalde, Pascoal ordurako urteetan sartuta eta alargun, haren alaba Maria hitz emana zegoen Domingo Iturrizarekin ezkontzeko, haatik, urte hartako martxoaren erdialdera "...nik, Domingo Iturrizak diot Terranobara joatekoa naizenez bakailao arrantzara, ezinezkoa zaidala nire ezkontza egunean izatea. Gauzak horrela, eta balioa izan dezan, ahalordetza ematen diot Domingo Arrizuriolari, Eliza Katolikoaren aginduen arabera izango den hitzezko ezkontza nire izenean burutzeko aipatutako Maria Aguirre Garduzarekin...". Haiek zazpi seme-alaba izan zituzten. 1697an, bestalde, senarraketa Maria Aguirre bere amaren aldetik oinordetzan zetorkion haien bizilekua hipotekatu zuten zilarrezko ehun Mailegu horren agirian ageri den deskribapenak adierazten digu zehazki zeinetaz ari den, "...lehenbizi, Iriarte kaleari bekoz beko dagoen, eta Aicecocalera ematen duen kaleari kantoia egiten dion gure bizitokia diren etxeak. Ondoa eskribau honen (Tomas Garate) eta emaztearen etxeak eta etxe-orubea ditu...". Pascoal alabarekin bizi izan zen, 1706an 88 urterekin hil



Garduzakua etxea, Atxatxin aldanen

ARRIETA
AUTOZERBITZUA



Aliprox

J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01



eguneko menua
daukagu

Camping 
Galdona

JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria

Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

zen arte.


Agerikoa zaigunez, mutrikuarrak ez ziren etxeko epelean egotekoak. Horrela, beraz, 1697 urte inguruan, Domingo Iturriza beste mutrikuar askorekin batera Buenos Aireserantz abiatu zen. Antza denez, urte batzuk baziren etxeratu gabe, eta Maria Aguirre emaztea, ondorioz, diruz urri zebilen. 1708an, azkenean, demanda jarri zion senarrarekin joan eta herrira itzuli zen mutrikuar bati senarrak emandako labana eskari baten 180 eskutuko balioa ez ordaintzeagatik. Egin zen epaiketari, *"...honezkerok hamaika urte baino gehiago badira abiatu zela, eta ez dakigu noiz etortzekoa den ez baitugu inolako berririk hartaz..."*. Domingok, nonbait, besteekin batera itzultzeko Brasilgo erreinura egin bazuen ere, ez dakigun arrazoiengatik Buenos Airesera itzultzea erabaki zuen etxeratzea atzeratuz. Izaera gogorreko gizonak ziren, inondik ere! 1725eko urrian, M^a Francisca haien alaba Joseph Elorza Mutrikuko Laranga baserrian bizi zen familia azkoitiar bateko semearekin ezkontzekoa zen. Bi sendiek egindako hitzarmenean gurasoez gain, amaren ahizpa Magdalenak ere ondasun batzuen lagapena egin zion ilobari, *"...testamenturik egin gabe hil zen gure aita Pascual Aguirrerena izandakoak, eta orain nire ahizpa Mariarekin batera ditudan ondasunen erdiak eskaintzen dizkiot ilobari; besteak beste, bizitoki dugun etxeko goiko aldeko etxebizitza, ganbara eta ondoko etxearen bodega..."*. Elorzarentzat bigarren ezkontza izan zen. Urte horretan senarrak ezkontzara eramandako doteko diruarekin gurasoen zorrak kitatu zituen M^a Franciscak. Egin zieten lagapenekin eta amak haren alde egindako oinordetzarekin M^a Francisca Iturrizak eta Joseph Elorzak sendiko etxe osoaren jabetza eskuratu zuten; hala ageri da, hain zuzen ere, lehen aldiz etxearen izena eta jabetza 1736an Mutriku egindako etxeen erroldan *"...Joseph Elorza, Garduzacoa etxearen jabea..."*. Lau seme-alabaren guraso izan ziren.

Joseph Elorzak, maila sozialean gora egiteko asmoz, Rafael eta Juan Domingo anaiekin kaparetasuna tramitatu zuen herri agintarien aurrean. Anaietan gazteena zen Juan Domingok askotariko ardurak bete zituen nola Madrilgo gortean hala atzerrian, eta errege idazkari izateraino heldu zen. Urteak eman zituen Madrilan, baina urteetan aurrera zihoala, alargunduta eta alaba bakarra oso gazterik hilda, Mutrikura itzuli, eta M^a Teresa iloba oinordeko izendatuta, bertan hil zen 1767an. Halaber, Elorza-Iturriza senar-emazteak ondasunak erosten joan ziren, hala nola, 1744an, Garduzacoa etxearen ondoan (gaurko San Gil kalean) zegoen Simonacoa izeneko etxearen erdiaren jabe izanik, beste erdia erosi zieten Casado ahizpei. Joseph eta M^a Franciscak lau seme-alaba izan zituzten. Aitaren izen bereko semea 1750ean Indietako erreinueta-rantz jo zuen. Itzuleran Mutrikuko alkate izan zen 1760an, eta ardura horiek bete ondotik Ameriketarantz egin zuen atzera berriz. Bigarren egonaldian, ordea, buru gaixotasun batek hartuta Limako erietxean ingresatu, eta bertan hil zen 1777ko martxoan. Josephek Garduzacoarekin jarrai zezan omen zen gurasoen nahia. Haren heriotzak asmoa zapuztuta, ordea, ordurako Francisco Churrucarekin etxe hartara ezkontuta zegoen anai-arrebetan zaharrena zen M^a Teresaren eskuetara aldatu zen.

Francisco Churruca Xemeingo elizateko Corostola goikoa baserrian jaioa dugu. Xemeingo lurretan kokatuta egonagatik, Mutrikutik gertuago zegoenez, gurasok gure herriko parrokiara ekarri zuten bataia zezaten 1721ean. Aski gazterik jo zuen Franciscok Manuel Antonio anaiekin batera Madrilgo gortera, han finkatutako euskaldun ezagunen baten gomendioa eta babesa baliatuz administrazio lanetan prestatzera. Idazlari eta notario izateko prestakuntzak burututa, Mutrikurantz egin zuen 1748ko ekainean. Handik bi urtera, M^a Teresa Elorza Francisco Churrucarekin ezkondu zen, eta hamar seme-alaba izan zituzten, helduarora lau baizik iritsi ez baziren ere. Maila sozialean gora eginda, Churruca-Elorza sendiak Garduzacoa etxea utzi eta haien mailari hobeto egokitzen omen zitzaion Arrietacoa jauregira aldatu ziren; dirudinez, 1759rako jauregira aldatuta zeuden jada. Francisco Churruca idazlaria ez ezik, alkate ere izan zen Mutriku, eta 1770eko urtarrelean haren eskutik *"...herriak duen azalera malkartsuagatik ez paseatzeko lekuri, ez eta herritarren aisialdirako pilotan aritzeko lekuri ez duenez, egokia deritzot frontoia egitea Zubiagaren eta zezendegiaren (udaletxe atzealde) artean hartzen duen lautadatxoan..."*.

1785ean Francisco eta M^a Teresaren asmoa zen Mutriku apaiz, eta gerora Mallorcako inksidorea izatera iritsi zen Juan Pascual seme

zaharrena oinordeko nagusia izendatzea. Aitaren heriotzatik bi urtera, ordea, Errege Kontseilueta abokatu zen Julian Baldomero M^a Dominica Ecenarro getariarekin ezkontzekoa zen. 1789an egindako ezkontza hitzarmenean Churrucatarren maiorazgoa sortu zuten Julianen alde, anai-arrebek haren alde zegoen eskubideei uko eginda. Haietako izan zen ia bizitza guztia herritik kanpo eman zuen Cosme Damian Churruca itsasgizon eta zientzialari ilustratu ezaguna ere. Maiorazgoaren baitan zegoen Garduzacoa izeneko etxea ere. Julian Baldomero eta emazteak izandako zazpi seme-alaben artean Jose Francisco izeneko seme zaharrena



Julian Churruca

aitaren lan ibilbide berbera urratu zuen, hura bezala abokatu eta zenbait aldiz Mutrikuko alkate izanik. Jose Francisco 1828an M^a Carmen Brunet lekeitiarrarekin ezkontzerakoan gurasoek maiorazgoa haren alde eskualdatu izanagatik, salbuespen bat jarri zioten *"...gurasoek bizi artean gordetzen dute beraien gozameneko Garduzacoa izeneko etxea. Orobat, baita jabetza librekoa den Gorostizabal izeneko baserria ere, gerora beste hiru semeetako batentzat izateko..."*. Baserriak nahiz Garduzacoa etxeak Churruca sendiaren jabetzan dirau oraindik ere. Ondorengoek uste zuten Garduzacoa Churrucatarren jatorritik zetorkiela, eta Evaristo Churrucaren Alfonso semeari XX. mende erdialdera, haien deiturari ohore egin nahian, etxeari marmolezko armarrria eranstea otu zitzaion. Ustea ustel, ordea.

XX. mendearen lehen laurdenean, bestalde, Agustin Lizardi eta Juana Alberdi senar-emazteak bizi izan ziren sendiarekin lehen solairua hartzen duen etxebizitzan maizter. Gerora, haien seme Ignaciok Rosario Lekuberekin etxera ezkontuta eman zion jarraipena hirugarren belaunaldiari. Orobat, gerra zibilean, Maria Granados eta senarra Espainiako Zalamea de la Serena herritik kanporatuak izan ziren ezkertiarrek izateagatik. Lucas senarra Santoñara eraman eta han hil zen; emaztea, berriz, Saturrarango emakumeen espetxera. Askatu zutenean, alargun, Maria Garduzacoa etxearen bigarren solairuan jarri zen bizitzen jaioteritik ekarritako lau seme-alabekin. Hil ostean, berriz, haren biloba Francisco Ageitos eta Ana Urain emazteak haien bizileku bihurtu zuten. Gaur-gaurkoz, alargun dagoen Rosario Lekubek soilik jarraitzen du bizitzen Garduzacoan.

Gure parte zaharreko etxeak gaur ez dira herritarren begietara nabarmentzen. Mutrikuar izatearen harrotasuna mendeetan ehuntzen joan ziren horma zahar horiek, ordea, begirada amultsuagoa merezi dute gure aldetik. Zain dezagun ondarea, zaindu gure haurrideek oinordetzan utzitako testamentu ederra, egin diezaiegun ohore, horrela baizik ez baita herri nortasuna eraikitzen, etxe bakoitza gure historia txirikordatzan laguntzen duen funtsezko haria baita.

Jose Angel Lizardi Agirregomezkorta

Informazio iturriak:

- Arrietacoa de Motrico. Un palacio urbano con personalidad singular. F. Borja Aguinagalde. 2.009
- Carlos J. Martinez Alava. "Mutriku. Historia eta ondarea". 2009.
- Mutrikuko Udaltzaia Historikoa. MUAH
- Gipuzkoako Artxibo Historikoa. AHPG-GPAH
- Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa
- Churruca etxeko Artxiboa-Mutrikuko Kondeak

DARE BARE

PINTXOAK RAZIOAK BORATAK

Arrieta Aldean Mutriku

tel: 943 60 42 03

Gotzon arrandegia

produktu fresko eta kalitatezkoak

Gotzon Eizagirre

Felix Txurruka, 2 - Tfnoak: 943 60 46 02 / 943 60 36 59

....ZORIONAGURRAK....



MADDI

Zorionak Maddi!
Ekainaren 14an 9 urte.
Barre eta dantza, ondo
pasa!!!



LAIDA

Zorionak Laida zure
9. urtebetetzean!
Segi horrela gure
bizitzak alaitzen,
printzesa!
Maite zaitugu!
Muxuak danon partez!



NARE

Zorionak uztailaren
24an 9 urte beteko
dezu ta!!!
Ondo-ondo pasau...
koadrilliakin eta
etxekoekin!
Matxe-matxe



UGAITZ eta IRAIA

Zorionakkkkkkk Iraia eta Ugaitz.
Uztailaren 13an... 9 urte haundi!
Ondo-ondo pasa eta muxusss etxeko gution
partez!!!



IRAIDE

Zorionak Iraide! 10 urte
haundi dagoeneko!
Familixa osuan partez
ta batez ere amatxo,
aitatxo ta Aranen
partez muxu asko ta
ondo pasa!



NORA

Zorionak etxeko
guztien partez!
Uztailaren 18an 5 urte
beteko dituzu eta
bagoaz aurrera!
Segi horrelako alai!
Muxu haundi bana!!



ANDER

Zorionak gure Anderreri!
VIII urte haundi ya!!!!
Matxo erraldoi bat
etxeko danon partez!
Bereziki, Eneko, Maddi
eta Einar!!



UGAITZ eta IRAIA

Zorionakkkk etxeko gimnastari eta futbolariari.
Uztailaren 13an 9 urte haundi bete duzue. Ondo
-ondo pasa uda osua eta segi beti alai. Muxusss
etxeko guztien partez.



EKHI

Zorionak!!! Dauaneko 7
urte... Segi beti bezain
alai. Muxu potolo bat
etxeko danon partez.




IXONE

Zorionak Ixone!!!
16 urte haundi!
Matxo haundi bat
familixa guztixan
partez!



GARI

Zorionak Gari!
Gure ganberruak 3
urte beteko ditxu
abuztuaren 4an.
Ondo pasa bihurri!



IARE

Zorionak gure
endrerasiai!
Bi muxu erraldoi
etxekuan partez.



LIBE eta KAIET

Zorionak Libe eta Kaiet!
Besarkada erraldoi bat
etxeko danon partez.

ZORIONTEKO eta ARGAZKI ZAHARRAK ERAKUSTEKO

ansorregi oinetakoak # aldizkaria@kalaputxi.eus # whatsapp 635748393



ANSORREGI
oinetakoak

erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com



Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatía

Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

Orgazki Zaharrak



1954 urte aldera, Joakin Belaustegi ilobekin potinean

Joakin Elezgarai, Migel Goenaga, Xiriako Belaustegi, Aitxona Joakin, Anton Elezgarai, Enkarnita Goenaga, Ana Mari Belaustegi, Mari Juli Belaustegi, Mari Kontxi Goenaga eta Mari Niko Agirrezabalaga



1929 urteko malenetan

Petra Lekube Birramona
eta Petra Mancisidor Arrizabalaga umea



1952 urtea, Malen bezperako danborradan

Izaskun Agirre «Akeliño» eta Rafael Basterretxea «Txino»

UZTAILA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
14 Lon Apraiz	15 Lon Apraiz	16 Lon Apraiz	17 Lon Apraiz	18 Lasuen Ele	19 Lasuen Ele	20 Lasuen Ele
21 Zalduegi	22 Zalduegi	23 Zalduegi	24 Zalduegi	25 Burgoa	26 Burgoa (2)	27 Burgoa
28 Lasuen Ele	29 Lasuen Ele	30 Lasuen Ele	31 Lasuen Ele			

ABUZTUA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

				1 Lon Apraiz	2 Lon Apraiz	3 Lon Apraiz
4 Burgoa	5 Burgoa	6 Burgoa	7 Burgoa	8 Zalduegi	9 Zalduegi (1)	10 Zalduegi
11 Lon Apraiz	12 Lon Apraiz	13 Lon Apraiz	14 Lon Apraiz	15 Lasuen Ele	16 Lasuen Ele	17 Lasuen Ele
18 Zalduegi	19 Zalduegi	20 Zalduegi	21 Zalduegi	22 Burgoa	23 Burgoa (2)	24 Burgoa
25 Lasuen Ele	26 Lasuen Ele	27 Lasuen Ele	28 Lasuen Ele	29 Lon Apraiz	30 Lon Apraiz	31 Lon Apraiz

IRAILA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

1 Burgoa	2 Burgoa	3 Burgoa	4 Burgoa	5 Zalduegi	6 Zalduegi (1)	7 Zalduegi
8 Lon Apraiz	9 Lon Apraiz	10 Lon Apraiz	11 Lon Apraiz	12 Lasuen Ele	13 Lasuen Ele	14 Lasuen Ele
15 Zalduegi	16 Zalduegi	17 Zalduegi	18 Zalduegi	19 Burgoa	20 Burgoa (2)	21 Burgoa
22 Lasuen Ele	23 Lasuen Ele	24 Lasuen Ele	25 Lasuen Ele	26 Lon Apraiz	27 Lon Apraiz	28 Lon Apraiz

UZTAILA

19	Goiko plazan	22:30	Kontzertua: Izaki Gardenak
uztailaren 20tik 25era MALEN JAIXAK			
25etik 3ra	Zabiel	Erakusketa: Santixo eguneko margo-lanak	

ABUZTUA

2	Goiko plazan	23:00	Kontzertua: Olaia Inziarte
6	Zabiel plaza	22:00	Udako Zinea: Robotia
9	Portuan	11:00	Merkatu txikia, Artisau eta Sortzaile Azoka
	Goiko plazan	23:00	Kontzertua: Mariachi Imperial de Guanajato
13	Zabiel plaza	22:00	Udako Zinea: Dragoi jagolea
20	Zabiel plaza	22:00	Udako Zinea: Los Aitas
23	Portuan	11:00	Merkatu txikia eta Azoka Ekologikoa

IRAILA

5etik 13ra	Zabiel	Erakusketa: Anaiarteren danborradak 25 urte	
-------------------	--------	---	--

BISITA GIDATUAK

· Zazpi hondartzak · Mutriku marinela · Olatu planta ·
· Nautilus, Flysheko fosilak · Arrietakua jauregia ·
Turismo bulegoan edo www.geoparkea.eus helbidean

ODOLA EMATEA 2025

abuztuak 8

· urriak 17 · abenduak 19 ·

17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan



Gipuzkoako Odol Emaileak

aldizkaria@kalaputxi.eus
whatsapp 635748393
iraileko aldizkarian
argitaratzeko
irailaren 12rako
bidali zuen mezuak

MENDI-IRTEERAK 2025

- Irailak 7** Bizkarreta – Urepel. Ezkabako ihesaren azken etapa (Burumendi)
Urriak 19 Arrankudiaga – Goikogane – Ganekogorta – Alonsotegi (Aurrera)
Urriak 26 Euskal Mendizale Federazioko XLIII. eta Gipuzkoako
Mendizale Federazioko XXXIX. Mendizale Helduentzako
Ibilaldia (Burumendi MT)
Azaroak 16 Samiño – Izazpi – Mandubia (Burdinkurutz MT)
Abenduak 14 Mutrikun. Urteko azken txangoa (Burumendi MT)



zuen elkartearen ekitaldien berri emateko idatzi helbide honetara:

aldizkaria@kalaputxi.eus
eta hemen argitaratuko ditugu iragartzeko dituzuenak

apain

INFORMA
ZAITEZ

BIZITZAK BEZAIN ANITZAK DIRA GORPUTZAK

Hemen, norberari egokitzen zaizkion tratamenduak aurkituko dituzu
MAITASUNA ETA ZAINTZA, DENEK MEREZI DUTELAKO



Ziortza

ILEAPAINDEGIA



Gure txokoan eguneroko
eginkizunean jardun
giro onean dotore jarritz
inguruko hainbat lagun
udara ere iritsi zaigu
hori da oso ezagun
merezi du ta Madalen jaiak
ondo pasatu ditzagun

📞 943945308 📍 Jose Maria Alcibar 10 📷 📱 Ziortza_ileapaindegia



Mutrikuko Udala